

SPEED

"SPEED" ERABILTZAILEENTZAKO KOMIKI INFORMATIBOA



Speed edo anfetamina, egun gehien faltsutzen duten sustantzietako bat da. Gehienetan kafeina da nagusiena, beste batzuetan azukrea eta igeltsua aurki daitezke, gaitzik eragiten ez duten gaiak hauek. Beste askotan, parasetamol edo hainbat analgesiko aurkituko dituzu.


Mozketa kaltegarria ez bada, orduan errango dUT ezer txarrik bota diotela drogari!

ITSUA...ETA IZUGARRIZKO BURUKO MINA EBITEN DIZU!



Neurria desberdina izaten da pertsona bakoitzarentzat. Hortaz jabetzeko zenbait gauza kontutan hartzekoak dira: zenbaterainoko sustantzia purua den, sustantzia hori hartzeko dugun ohitura, norberaren pisua, gai suspergari hauenganako sentsibilitatea... pixkanaka hastea izango duzu hobekien.

Bai ala? Orduan, argat xamar daudenak soilik gonbidatuko ditut!



Suspergarriek momentuko energia itzela ematen digute, gorputzak gero errekuperatu beharko duena. Horregatik ondoko egunetako nekea, gogorik eza, erraz haserretze hori...




Speeda hartzerakoan gorputza pixkanaka zahartzen joango zaigu, bizi organoek are lan handiagoa egin behar baitute.



Sexuari dagokionez, orgasmora ailegatzeko, zakila xutitzeko, bagina-jariorako arazoak ekarri ditzake. Hala gertatuko balitz lasai egon, eta saiatu bestelako sexu jokoekin, beti ere, kondoia ipinita! Kondoia buruan eta ibili munduan!

Et! Baina esan dizut maritxua ez naizela!

Speedak izango du orain kulpaa...




Jakin dezazula behin speeda hartzeko prest zaudela, ondoko egunetan triste xamar, gogorik gabe eta deprimitu antzera ibiliko zarela. Ez behartutako erabakirik hartu, eta aurrera egin!

Banoa beste norabait bizitzera!
Nazka-nazka eginda nago hiri honekin! Ezin dut gehiago jendearekin!

Lasai. Nora joango zara baina?

Ibañat dit,
Londonera, Madridera,
Pakistanera... EDONORA!



Pasa diren jailetan lep oraino sartu du-eta...

Speedak gogo biziko egoeran jartzen gaitu eta neurririk gabe erretzera eta edatera eraman gaitzake. Horregatik bestondoa are handiagoa izango da. Deshidratatu egiten du, eta alkoholarekin hartzerakoan komeni da tarteka ura, zukuak edo edari isotonikoak hartzea. Biharamunean zure gorputzak eskertuko dizu.

Hau buruko mina! Hau bestondoa! Speed apurrak miakatzan ibiltzea ere...



Tolerantzia sortzen du speedak, geroz eta neurri handiagoan hartu beharko duzu efektu bera lortzeko. Eta arriskua ere areagotu egingo da. Noizean behin sartuta, edo sartzeari utziko badiogu, orduan tolerantzia hori desagertu egingo da.


Orain halako marrantzarrak sartzen badituztu, pentsa urte batzuen barruan nolakoak beharko dituzun!



Astebururo eta jai guztietan kontsumitzeak arrisku maila igotzen du, eta fisiko nahiz psikiko albo-ondorio larriagoak: portaera paranoikoa, depresioa, bortizkeria... Neurriaz beste egiten baduzu burua ere joango zaizu.


Ziur ikusi gaituztela eta gure bila dat ozela...

PUTZA!




Sudurretik sartzean arnasketa bidea izorratzen digu, eta hori pixka bat ekiditeko, etxeraterakoan ona da sudurra itsasoko gatza eta ura edo gazura nahastuta garbitzea. Ahoa ongi garbitzea bezain garrantzitsua da sudurra ongi garbitzea.

Mendi
TONTORREAN
BEZALATSV
ARNASTUKO
DUZU!



Hamaika gaixotasunekin kutsatu gaitzke sudurretik sartzerakoan billete edo tururu berbera erabiltzen badugu: katarroa, hepatitis Ca, tuberkulosia... egokiena norberak bere erabili eta botatzeko hoditxoia erabiltzea da.



Zeuk benetan gogo duzunean kontsumitu eta ez beste inork aginduta. Norberaren erritmoa errespetatuta hobeki ibiliko zara.

Guztiok sartu dugu, zuk zergatik ez duzu nahi?

Zergatik ez duzu bokata besteok bezala jan?

Goserik ez nuelako

Horixe bera, goserik ez dudalako.



ailaket!!

Ai laket!!-en kontsumo arduratsuaren eta erabilerak eragindako arriskuen ikuspuntutik autogestioaren askotariko sustantzia psikoaktiboekin bizitzen ikastearen aldeko apostua egiten dugu.

Izan ere, drogak kontsumitzea ala ez, pertsona helduek informazioa jaso ondoren askatasunez hartu beharreko erabakia dela uste du. Ai laket!!-en asmoa, beraz, ez da erabaki horren gainean eragina izatea, baizik eta informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria eskaintzea, kontsumitzeko erabakia hartzekotan, erabakia ondo hausnartutakoa izan dadin eta kontsumitzaileek zentzudun jokatzeko informazioa izan dezaten.

 www.ailaket.com - ailaket@ailaket.com
Ai Laket!! Tel: 945 23 15 60

Jesusen Mirabeen Sortzailearen kalea,
40 etxabe.
01001 Vitoria-Gasteiz (Araba)

argitaratua:

ailaket!!

laguntzaileak:



egilea:

ABARROTS